

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea. Gure kasuan, enpresaren funtsezko elementuak giza baliabidea eta baliabide intelektuala izango dira. Izan ere, aplikazio bat denez, gure enpresako kideok egingo dugu lan eta ezinbestekoa izango da taldekideon sormena, webguneak diseinatzeko ezagutzak eta salmentetarako eta antolaketarako abileziak.

Lan hori aurrera eraman ahal izateko baliabide fisikoak beharko ditugu, batez ere, ordanagailua eta horretarako noski, internet konexioa. Oraingoz ez dugu beste baliabide fisikorik beharko, bakoitzak bere etxetik lan egingo baitu, baina agian, etorkizunean, lokal baten edota lan egin ahal izateko materialen beharra ez da baztertzen.

Eskaintzen dugun zerbitzuko ekintza bakoitza bideratzeko, giza baliabideak dira beharrezkoak. Ekintza bakoitzean monitore bat egongo da eta bera arduratuko da beharrezko materiala eramateaz. Monitoreak egun osoan zehar lagunduko die gure bezeroei eta horrela egunaz gozatuko dute.

Bestalde, finantza baliabideen beharra ere aurreikusten dugu, mozkinak. Hau zaila izango da lortzen, izan ere, kontsumitzaileek ez dute nahi diru askorik gastatu eta guk beste enpresa batzuk azpikontratatu behar ditugu. Bestalde, gure mozkin nagusiak, *premium* izateko aukerak eskainiko dizkigu eta hau hilean ordaindinketa bat eginez lortuko da. *Premium* aukera honek promozio bereziagoak eskainiko ditu egun berezietan, adibidez Gabonetan.